

MUTRIKU / 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena martxan jarri du udaleko euskara zerbitzuak

Ekainaren 30ean bukatu da kanpaina

Liburuaren Nazioarteko Egunaren baitan, irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina jarri dute Euskara Elkarteek Topaguneak, 'Kalaputxi' aldizkaria argitaratzen duen Karenka Komunikazio Elkarteak eta Udaleko Euskara Zerbitzuek elkarlanean.

Kanpainak 'Irakurri, gozatu eta oparitu' izenburua du eta herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu.

Hiru pauso zehatz dira bete beharrekoak: Lehena, irakurri, horretarako herriko liburutegi publikora joan, euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurri behar da.

Bigarrena, gozatu, liburuak irakurritakoan liburutegira itzuli, eta fitxa sinple bat bete behar da. Fitxa hori beteta liburuzainak erosketa-txartela emango dio irakurleari herriko hiru liburu dendetako batean erabiltzeko.

Azken pausoa oparitu da, liburuak erosi eta lagun bati, senide bati edo eta norberaren buruari liburuak oparitzea.

Deskontu erakargarriak

Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein liburu erosterakoan, %25eko deskontua izango du irakurle-erosleak, eta %50 euskaldunon elkarteetako kide bada edo eta Euskaltegian ikaslea bada, herriko 'Irakurzale Elkarteetako' kide bada edo eta 'Kalaputxi' aldizkarietako kide bada. Ekimena, apirilaren 23an hasi zen eta ekainaren 30ean amaituko da, uda aurreko hilabeteak baliatzen bai ditu egitasmoak liburuaren irakurketarako garai egokienak, edo eta udarako liburu aurrerapen bat ere egin daiteke, baina lehen aipatutako hiru pausoak zehatz-mehatz beteaz beti ere.

Aipatu baita, egitasmo hau aurrera eramateko, Udal Euskara Zerbitzuak Udal Liburutegietako arduraduna den Lola Sousa eta herriko hiru liburu-dendetako - Virginita, Beristain eta Sabina- arduradunekin elkarlanean aritu dela, hauek izango baitira proiektuaren bihotz eta arima.

Ordutegi malgua

Aipatu azkenik, Udal Liburutegiak duen ordutegi malgua, izan ere ekimena hemen hasten baita. Gogoratu, Udal Liburutegia astelehenetan goizeko 10:00etatik 13:00etara eta asteartetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara irekita dagoela. Horrez gain, ordutegi lasaiagoak ziurtatu asmoz, 17:00etatik 19:00etara guztientzat irekia izaten da, eta 19:00etatik 20:00etara 16 urtetik gorakoentzat bakarrik.

Bestalde, aparteko Haur Liburutegia ere irekia egoten da arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean asteartetik ostirala bitartean.